BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ANTZUOLAKO UDALERRIAN (GIPUZKOA) INGURUMEN- ETA OSASUN-KONTROLERAKO ZERBITZUA KONTRATATZEA

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE REGIRAN EL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE CONTROL SANITARIO AMBIENTAL EN EL MUNICIPIO DE ANTZUOLA (GIPUZKOA)

I. KONTRATUAREN EDUKIA

0. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri honen helburua da Antzuolako udalerrian ingurumen- eta osasun-kontrol integraleko zerbitzua kontratatzea, udal titulartasuneko instalazio, sare eta espazioetan legionelosiaren prebentzioa eta kontrola nahiz hiri-izurrien kontrola barne hartuta.

Zerbitzuaren helburua da osasun publikoa bermatzea, osasun-arriskua sor dezaketen instalazio eta inguruneetan prebentziozko, kontrolerako eta zuzenketa-neurriak planifikatu, gauzatu eta jarraituz, ingurumen-osasunaren arloko indarreko araudiaren arabera

CPV kodea: - 90920000-2 “Instalazioak higienizatzeko zerbitzuak”.

2.- Kontratu honen xedeak lote bakarra osatzen du.

3.-Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 99.3 artikuluari jarraituz (9/2017 Legea, azaroaren 8koa). Antzuolako Udalak uste du ez dela egokia kontratua loteetan zatitzea, ulertzen baitu kontratuaren xedearen barruan sartzen diren prestazioak funtzio tekniko eta ekonomiko batekoak direla eta euren artean harreman operatiboa dagoela. Kontratu batean kontratuaren azken beharra asebetetzeko beharrezkoak diren prestazio guztiak jaso behar dira (helburu osoaren printzipioa).

Kontratu hau lotetan ez zatitzeko beharra berez dator hemendik: batetik Kontratuaren gestioan aurrezkia bilatzea, eta bestetik bateratuta prestazio hobea ematea, izatez zerbitzu bakarra baita.

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

0. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente pliego es la contratación del servicio integral de control sanitario ambiental en el municipio de Antzuola, comprendiendo la prevención y control de la legionelosis y el control de plagas urbanas en instalaciones, redes y espacios de titularidad municipal.

El servicio tiene como finalidad garantizar la protección de la salud pública mediante la planificación, ejecución y seguimiento de actuaciones preventivas, de control y correctoras en aquellas instalaciones y entornos susceptibles de constituir un riesgo sanitario, de conformidad con la normativa vigente en materia de sanidad ambiental.

Código CPV: 90920000-2 “Servicios de higienización de instalaciones”.

2.- El objeto de este contrato viene configurado como un único lote.

3.- De conformidad con el artículo 99.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público el Ayuntamiento de Antzuola considera que no procede la división en Lotes del contrato por entender que las prestaciones incluidas en el objeto del contrato responden a una única función técnica y económica y guardan entre si un vínculo operativo. Resulta exigible que en un contrato se incluyan todas las prestaciones necesarias para la satisfacción de la necesidad final del contrato (principio de objeto completo).

La necesidad de no dividir este contrato en lotes viene dada por la búsqueda por un lado del ahorro en la gestión del contrato y por otro, la mejor prestación unificada del servicio que es único.

ANTZUOLAKO UDALA

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

Egingo den kontratua zerbitzuetako kontratu modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena (17 artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatuko dituzten erregelamenduzko arauak, eta Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak.

Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki bidez esleitzeko, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 156 artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera.

KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Legionelosia prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun-baldintzak ezartzen dituen ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak betetzea, eta, horrela, udal-instalazioen osasun-ikuspegitik egoera egokia bermatzea.

Preskripzio teknikoen agirian jasota dago zer arrazoirengatik egingo duen administrazio honek agiri honen xede den kontratua.

2- KONTRATAZIO-ORGANOA

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 2. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Alkatetzak izango du kontratazio hau egiteko ahalmena.

Kontratazio-organo horrek du administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak bat datoz araudi

1. RÉGIMEN JURÍDICO

La contratación a realizar se tipifica como contrato de servicios de conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público (en adelante LCSP), quedando sometida a dicha Ley, así como al Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, en tanto continúe vigente, y al Real Decreto 817/2009 , de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, o a las normas reglamentarias que los sustituyan (en adelante normativa de desarrollo de la LCSP), y a las cláusulas contenidas en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Se tramita expediente ordinario para la adjudicación del contrato mediante procedimiento abierto, según lo dispuesto en los artículos 156 y siguientes de la LCSP.

JUSTIFICACIÓN DE LA NECESIDAD DE CONTRATAR

Cumplir con las exigencias establecidas en el RD 487/2022, de 21 de junio, por el que se establecen los requisitos sanitarios para la prevención y control de la legionelosis, y de este modo garantizar el estado adecuado desde el punto de vista sanitario de las instalaciones municipales.

En el pliego de prescripciones técnicas constan las razones que han llevado a esta Administración a la celebración del contrato a que se refiere el presente pliego.

2- ORGANO DE CONTRATACIÓN

Por razón de lo dispuesto en la Disposición Adicional 2ª la LCSP, la competencia para la presente contratación corresponde a la Alcaldía.

El mencionado órgano tiene facultad para adjudicar el correspondiente contrato administrativo y, en consecuencia, ostenta las prerrogativas de interpretarlo, resolver las dudas que ofrezca su ejecución, modificarlo y acordar su resolución, con sujeción a la normativa aplicable.

aplikagarriarekin.

Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta enpresa esleipendunak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean inpugnatzeko.

Los acuerdos que a este respecto dicte serán ejecutivos, sin perjuicio del derecho de la empresa adjudicataria a su impugnación ante la jurisdicción competente.

3. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio- jardunbide honetan, baldin eta euren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 71 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.

Pertsona juridikoak esleipendun izan daitezke, soil-soilik euren prestazioak jardueraren xede, helburu edo arloan sartuta badaude eta euren estatutu edo fundazio-arauetan hala jasota badago. Gainera, kontratua behar bezala betetzeko beharrezkoa den antolakuntza edukiko du (nahikoa langile eta materialekin).

Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek agiri bidez frogatu beharko dute ordezkari izateko ahalmena dutela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.

Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta esleipena egin baino lehen enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa amaitzen bada (fusioagatik, zatiketagatik edo bere enpresa-ondarea eskualdatzeagatik), orduan honako hauetako batek hartuko du prozeduran hark zuen lekua: sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortutakoak, zatiketaren onuradunak edo ondarea bereganatu duenak, baldin eta kontratatzeko gaitasuna izan eta hartarako inolako debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena duela egiaztatzen badu, betiere esleipen prozeduran parte hartzeko plegu hauetan eskatutako baldintzetan.

3. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP.

Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratoscuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios, y deberán disponer de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, a la/el representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

Si durante la tramitación del procedimiento y antes de la adjudicación se produce la extinción de la personalidad jurídica de la empresa licitadora por fusión, escisión o por la transmisión de su patrimonio empresarial, le sucederá en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibiciones de contratar y acredite la clasificación y/o solvencia en las condiciones exigidas en este Pliego para participar en el procedimiento de adjudicación.

4. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA GAUZATZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena **bi (2) urtekoa** izango da, formalizazio-datatik zenbatzen hasita edo, hala badagokio, zerbitzuaren hasiera-aktan ezartzen den egunetik aurrera.

Kontratua **berariaz luzatu** ahal izango da, kontratazio-organoak hala erabakita, gehienez **beste bi (2) urtez**, luzapen bakar batean edo gehiagotan, eta kontratuaren guztizko iraupena, luzapenak barne, ez da **lau (4) urtetik** gorakoa izango, kontratazio publikoaren araudian ezarritakoaren arabera.

Luzapena nahitaezkoa izango da esleipendunarentzat, baldin eta Administrazioak kontratua amaitu baino gutxienez **bi hilabete** lehenago erabakitzen badu.

Inola ere ez dira onartuko isilbidezko luzapenak, eta berariaz formalizatu beharko dira kontratazio-organoaren ebazpen bidez.

Kontratuaren indarraldian, esleipendunak **zerbitzuaren jarraitutasuna, erregulartasuna eta kalitatea** bermatu beharko ditu, etenik gabe eta plegu honetan eskatutako baldintza teknikoak murriztu gabe.

Aurreko ataletan ezarritakoa gorabehera, kontratuaren epea betetzean kontratu berria ez bada formalizatu, kontratu berriak bermatu behar duelarik zerbitzua ematen jarraitzea, kontratazio organoarentzat ustekabean izandako gorabeheren ondorioz, gertatuak adjudikazio prozedura berrian, eta interes publikoko arrazoiak egonez gero ez eteteko prestazioa, luzatu ahal izango da kontratu hau, kontratu berria exekutatzen hasi arte, gehienez ere bederatzi hileko epe batean, aldatu barik kontratuaren gainerako baldintzak, eta kontratu berriaren lizitazio iragarkia argitaratu bada gutxienez hiru hilabete lehenago, kontratu honen amaiera egunari buruz.

4. DURACIÓN DEL CONTRATO Y PLAZO DE EJECUCIÓN

La duración del contrato será de **dos (2) años**, contados desde la fecha de formalización del mismo o, en su caso, desde la fecha que se establezca en el acta de inicio del servicio.

El contrato podrá ser objeto de **prórroga expresa**, acordada por el órgano de contratación, por un periodo máximo de **dos (2) años adicionales**, pudiendo establecerse en una o varias prórrogas, sin que la duración total del contrato, incluidas las prórrogas, exceda de **cuatro (4) años**, de conformidad con lo dispuesto en la normativa de contratación pública.

La prórroga tendrá carácter obligatorio para el adjudicatario siempre que sea acordada por la Administración con una antelación mínima de **dos meses** a la finalización del contrato.

En ningún caso se admitirán prórrogas tácitas, debiendo formalizarse expresamente mediante resolución del órgano de contratación.

Durante la vigencia del contrato, el adjudicatario estará obligado a garantizar la **continuidad, regularidad y calidad del servicio**, sin interrupciones ni disminución de las condiciones técnicas exigidas en el presente pliego.

No obstante lo establecido en los apartados anteriores, cuando al vencimiento del contrato no se hubiera formalizado el nuevo contrato que garantice la continuidad de la prestación de este servicio como consecuencia de incidencias resultantes de acontecimientos imprevisibles para el órgano de contratación producidas en el nuevo procedimiento de adjudicación, y existan razones de interés público para no interrumpir la prestación, se podrá prorrogar el presente contrato hasta que comience la ejecución del nuevo contrato, por un periodo máximo de nueve meses, sin modificar las restantes condiciones del contrato, y siempre que el anuncio de licitación del nuevo contrato se haya publicado con una antelación mínima de tres meses respecto de la fecha de finalización del contrato originario.

5. KONTRATUAREN AURREKONTUA. ETA LIZITAZIOAREN ZENBATEKOA

5.3. Kontratuaren gehienezko aurrekontua eta lizitazioaren zenbatekoa **42.693,00€** da, BEZ SARTU GABE

Lizitatzaileek kopuru horretatik behera dagoen eskaintza egin dezakete, bestelako kopuru zehatz bat proposatuz.

Interesatuek egiten dituzten proposamenetan, ondorio guztietarako kontrata-prezioak ez ezik, kontzeptu ezberdinak zergapetzen dituzten era guztietako zergak ere sartuta daudela ulertuko da. Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergak banakatua agertu beharko du eskaintzetan, kontratuari bere arautegi arautzailearen arabera aplikagarri zaizkion tipoa eta zenbatekoa adieraziz.

5.2. Era berean, SPKLren 101.a artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau izango da kontratuaren balio zenbatetsia, noiz hasten den eta izan ditzakeen luzapenak kontuan hartuta, eta BEZ sartu gabe, **85.386,00€ da.** Honela kalkulatu da:

Lehengo urtekoa	42.693,00€
Luzapena (3urtera arte)	42.693,00€
Guztira	85.386,00€

5. PRESUPUESTO DEL CONTRATO E IMPORTE DE LICITACIÓN.

5.1. El presupuesto máximo del contrato y el importe de la licitación asciende a la cantidad de **42.693,00€** IVA NO INCLUIDO.

Dicha cantidad podrá ser mejorada a la baja por las empresas licitadoras en sus ofertas, consignando una cantidad concreta y determinada.

En las propuestas que formulen las empresas interesadas se entenderán incluidos, a todos los efectos, no sólo los precios de la contrata, sino también las cuotas correspondientes a los tributos de toda índole que graven a los diversos conceptos. El Impuesto sobre el Valor Añadido, no obstante, deberá figurar de manera desglosada en las ofertas, indicando tipo e importe aplicable al contrato conforme a su normativa reguladora.

5.2. Asimismo, de conformidad con lo establecido en el art. 101.a de la LCSP el valor estimado del contrato, teniendo en cuenta su duración inicial y las posibles prórrogas del mismo, y excluido el IVA, es de **85.386,00€.**

Primera anualidad	42.693,00€
Prorrogas (hasta 2)	42.693,00€
Total	85.386,00€

6. FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, behar beste diru jarri da 2026 ekitaldiko aurrekontuan, honako partidan: 1 227.99.153.01 2026.

Halaber, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko du aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

6. FINANCIACIÓN

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo al presupuesto del año 2026, partida: 1 227.99.153.01 2026

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

7. ORDAINTZEKO MODUA

Kontratu honen xede diren zerbitzuen fakturazioa lanak gauzatu ondoren eta Antzuolako Udalaren adostasuna jaso ondoren egingo da, Baldintza Teknikoen Agirian Seigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

7. FORMA DE PAGO

La facturación de los servicios objeto del contrato se realizará una vez ejecutados los trabajos y previa conformidad del Ayuntamiento de Antzuola, conforme a las condiciones establecidas en la Clausula Sexta sel Pliego de Prescripciones Técnicas.

Enpresa esleipendunak fakturak xehakatuta aurkeztu beharko ditu, zerbitzua osatzen duten kontzeptuak argi identifikatuz, Baldintza Teknikoen Agiriko III. Eranskinean definitutako egitura ekonomikoaren arabera.

La empresa adjudicataria deberá presentar las facturas de forma desglosada, identificando claramente los distintos conceptos que integran el servicio, de acuerdo con la estructura económica definida en el Anexo III del pliego. de Prescripciones Técnicas.

Faktura onartu eta gero, indarrean dagoen araudiak zehaztutako epean eta eran egingo da ordainketa.

Una vez aceptada la factura, el pago se realizará en el plazo y forma que determine la normativa vigente.

Fakturak formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez, helbide honetara: https//www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, horretarako Antzuolako Udalaren DIR3 kodeak erabiliz:

Las facturas deberán presentarse en formato electrónico en los supuestos establecidos por la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de impulso de la factura electrónica y creación del registro contable de facturas del Sector Público, a través de la Sede Electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa, dirección: https//www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua, utilizando los códigos DIR3 del Ayuntamiento de Antzuola:

1.- Kontabilitate Bulegoa: L01200111
2.- Organo kudeatzailea: L01200111
3.- Unitate izapidetzailea: L01200111

1.- Oficina Contable: L01200111
2.- Organo Gestor: L01200111
3.- Unidad Tramitadora: L01200111

8. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Prezioa ez da berrikusiko.

8. REVISIÓN DE PRECIOS

No procede la revisión de precios.

9. BERMEAK

Kontratuaren adjudikaziodunak behin betiko bermea jarri behar du, bere gain hartutako betebeharrak beteko dituela bermatzeko. Bermearen zenbatekoa adjudikazioaren zenbatekoaren % 5 izango da, BEZ aparte.

Berme hori jartzeko epea 14. klausulan aipatutako eskakizunean adierazitakoa izango da. SPKLren 108. artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz jarri ahal izango da bermea. Bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabil daitezke bermea jarri dela egiaztatzeko. Baldintza hori lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik betetzen ez bada, administrazioak ez du adjudikazioa beraren alde emango.

9. GARANTIAS

El adjudicatario del contrato deberá constituir una garantía definitiva que garantice el cumplimiento de las obligaciones asumidas. El importe de la garantía será del 5% del importe de la adjudicación, IVA excluido.

El plazo para la constitución de esta garantía será el señalado en el requisito referido en la cláusula 14. La garantía podrá prestarse por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la LCSP. La constitución de la garantía podrá realizarse por medios electrónicos, informáticos o telemáticos. El incumplimiento de este requisito por causas imputables al licitador determinará que la Administración no otorgue la adjudicación a su favor.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko, osorik edo hala badagokio partez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta adjudikaziodunak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

La devolución o cancelación de la garantía, en todo o en parte, se regirá por lo dispuesto en el artículo 111 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, una vez transcurrido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas las obligaciones establecidas en el contrato.

II.- KONTRATUAREN ESLEIPENA

II.- ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO

10. ESLEITZEKO PROZEDURA

10. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez adjudikatuko da, SPKLn ezarritakoari jarraituz; lege horretan eta bera garatzeko arauetan ezarritako jardunei jarraituko zaie adjudikazioa izapidetzean.

La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto, de acuerdo con lo previsto en la LCSP, en cuya tramitación se seguirán las actuaciones recogidas en la citada Ley y sus normas de desarrollo.

Kontratuaren esleipena egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat, bakoitzak duen garrantzi eta haztapenaren arabera beheraka ordenatuta:

Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del contrato, relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye, son los siguientes:

10.1. Formula bidez ebalua daitekeen irizpidea.

10.1 Criterio evaluable mediante fórmula

Eskaintza ekonomikoa, lizitazio- tasaren arabera. Gehienez 60 puntu.

La oferta económica respecto al tipo de licitación. Hasta 60 puntos.

10.2. Balio-judizioen menpe ebaluatuko diren irizpideak.

10.2 Criterio evaluable mediante juicios de valor

Irizpide teknikoak. Gehienez 40 puntu.

- Lan programa eta metodologia (gehienez 15 puntu)
- Zerbitzuaren antolaketa eta baliabideak (gehienez 10 puntu)
- Kontrol eta jarraipen hobekuntzak (gehienez 10 puntu)
- Ingurumen neurriak (gehienez 5 puntu)

Criterios técnicos. Hasta 40 puntos.

- Programa de trabajo y metodología (hasta 15 puntos)
- Organización del servicio y medios (hasta 10 puntos)
- Mejora del control y seguimiento (hasta 10 puntos)
- Medidas ambientales (hasta 5 puntos)

10.1. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN IRIZPIDEA GEHIENEZ 60 PUNTU.

10.1. CRITERIO EVALUABLE MEDIANTE FÓRMULA: PUNTUACIÓN MÁXIMA DE 60 PUNTOS.

Eskaintza ekonomikoari gehienez 60 puntu emango zaizkio, eta puntuaziorik handiena emango zaio onartutako eskaintzarik merkeena aurkezten duen lizitatzaileari.

La oferta económica se valorará hasta un máximo de 60 puntos, otorgándose la máxima puntuación a la oferta admitida de menor importe.

Gainerako eskaintzen puntuazioa formula honen bidez kalkulatuko da:

$$PE_i = M \times \left(\frac{Om}{Oi}\right)^{1/2}$$

Non:

- Pi = baloratutako eskaintzak lortutako puntuazioa, bi dezimaletara biribildua.
- M = irizpide ekonomikoari esleitutako gehieneko puntuazioa (60 puntu).
- Om = onartutako eskaintzarik baxuena.
- Oi = baloratzen den lizitatzailearen eskaintza ekonomikoa.

Eskaintza ekonomikoa pleguan ezarritako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta kontratua behar bezala exekutatzeko beharrezkoak diren kostu zuzen eta zeharkako guztiak barne hartu beharko ditu: langileak, joan-etorriak, bitarteko osagarriak, produktuak, analitikak, dokumentazio-kudeaketa, aseguruak, gastu orokorrak eta industria-onura.

Eskaintza batek balore anormalak baditu edo neurriz kanpokoa bada, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149 artikuluan aurreikusitako prozedura jarraituko da, atalean adierazitako bazterketa arrazoiak aplikatuko dira; hala, anormaltzat joko dira lizitazioko gehiengo prezioaren azpitik %16an dauden eskaintzak.

10.2 FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK (balio-iritzien araberakoak): GEHIENEZ 40 PUNTU

Puntuazioa ondorengo metodoaren bidez emango da:

1. <u>Lan programa eta metodologia (gehienez 15 puntu)</u>

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Legionellaren kontrol programaren garapena (PPCL).
- Laginketa programa.
- Karraskarien kontrol programa.
- Jarduteko metodologia.

La puntuación del resto de ofertas se obtendrá mediante la siguiente fórmula:

$$PE_i = M \times \left(\frac{Om}{Oi}\right)^{1/2}$$

Donde:

- Pi = puntuación obtenida por la oferta valorada, redondeada a dos decimales.
- M = puntuación máxima asignada al criterio económico (60 puntos).
- Om = oferta económica más baja admitida.
- Oi = oferta económica correspondiente a la licitadora que se valora.

La oferta económica deberá presentarse conforme al modelo establecido en el pliego e incluirá la totalidad de los costes directos e indirectos necesarios para la correcta ejecución del contrato, incluidos personal, desplazamientos, medios auxiliares, productos, análisis, gestión documental, seguros, gastos generales y beneficio industrial.

En caso de ofertas incursas en valores anormales o desproporcionados se seguirá el procedimiento previsto en el art.149 de la LCSP, aplicándose las causas de rechazo mencionadas. De conformidad al citado art. 149 se considera que incurre en baja anormal aquellas ofertas que se encuentren un 16% por debajo del precio máximo de licitación fijado.

10.2 CRITERIOS NO EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS (criterios de valoración mediante juicio de valor): PUNTUACIÓN MÁXIMA 40 PUNTOS

La puntuación se otorgará mediante el siguiente método:

1. <u>Programa de irabajo y metodología (hasta 15 Puntos)</u>

Se valorará la calidad, coherencia y adecuación del programa presentado, incluyendo:

- Desarrollo del programa de control de Legionella (PPCL)
- Programa de muestreo
- Programa de control de roedores
- Metodología de actuación

Bereziki baloratuko dira:

- Instalazioen benetako inbentariora egokitzea.
- Baliabideen, plangintzaren eta helburuen arteko koherentzia.
- Zerbitzuaren antolaketa argia.

2. Zerbitzuaren aAntolaketa eta baliabideak (gehienez 10 puntu)

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Zerbitzuaren egitura antolatiboa.
- Langileen eskuragarritasuna eta kualifikazioa.
- Kontratuari lotutako baliabide materialak.
- Gorabeheren aurrean erantzuteko gaitasuna.

3. Kontrol eta jarraipen hobekuntzak (gehienez 10 puntu)

Honako hobekuntza-proposamenak baloratuko dira:

- Erregistro eta trazabilitate sistemak.
- Eremu kritikoetan jarraipen-maiztasuna handitzea.
- Zerbitzua optimizatzeko proposamenak.

4. Ingurumen Neurriak (gehienez 5 puntu)

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Ingurumen-inpaktua minimizatzeko neurriak.
- Toxikotasun txikiagoko produktuen erabilera.
- Ingurumen-hobekuntzarako proposamenak.

Se valorará especialmente:

- Adecuación al inventario real de instalaciones
- Coherencia entre medios, planificación y objetivos
- Claridad en la organización del servicio

2. Organización del servicio y medios (hasta 10 Puntos)

Se valorará:

- Estructura organizativa del servicio
- Disponibilidad y cualificación del personal
- Medios materiales adscritos al contrato
- Capacidad de respuesta ante incidencias

3. Mejora del control Y seguimiento (hasta 10 puntos)

Se valorarán las propuestas que mejoren el control del servicio, tales como:

- Sistemas de registro y trazabilidad
- Mejora en la frecuencia de seguimiento en zonas críticas
- Propuestas de optimización del servicio

4. Medidas Ambientales (Hasta 5 puntos)

Se valorarán:

- Medidas de minimización del impacto ambiental
- Uso de productos de menor toxicidad
- Propuestas de mejora ambiental

11. ESKAINTZEN AURKEZPENA

Lizitazio hau Udal honen kontratatzailearen profilean iragarriko da, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira plataforma horren bidez, **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO** epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita, epearen azken eguneko 23:59ak arte. Epearen azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

11. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

La presente licitación será anunciada en el perfil de contratante de este Ayuntamiento, alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi.

Las proposiciones deberán presentarse electrónicamente a través de la citada Plataforma, durante el plazo de **QUINCE 15 DÍAS NATURALES**, contado a partir del siguiente al de la publicación del referido anuncio, hasta las 23:59 horas del último día del plazo señalado. Si el último día del plazo fuera inhábil, este se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.

Udal honen kontratatzaile-profila helbide honetan eskuratu ahal izango da: www.antzuola.eus edo www.contratacion.euskadi.eus. Leku horretan bertan eskura daitezke agiriak eta dokumentazio osagarria.

El acceso al perfil de contratante de este Ayuntamiento se podrá llevar a cabo a través de la siguiente dirección: www.antzuola.eus o www.contratacion.euskadi.eus. En este mismo lugar se podrá tener acceso a los pliegos y a la documentación complementaria.

Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko, helbide honetara joan:

Antzuolako Udala
Herriko plaza 8; 20577 ANTZUOLA.
Edo posta elektronikoz: udala@antzuola.eus

Para contactar con la Unidad de Contratación, dirigirse a:

Antzuolako Udala
Herriko plaza 8; 20577 ANTZUOLA.
O por correo electrónico: udala@antzuola.eus

Lizitatzaile diren pertsona fisiko edo juridikoek agiriei edo, hala badagokio, dokumentazio osagarriari buruz eskatzen duten informazio gehigarria proposamenak jasotzeko ezarritako epemuga baino sei egun lehenago emango da, baldin eta eskaera proposamenak jasotzeko epea amaitu baino 8 egun lehenago egin bada, gutxienez.

La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten las personas físicas o jurídicas licitadoras, será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos 8 días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 136.2 eta 3. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria ezin izan bada adierazitako epeetan eman, edo eskaintzak lekuan bertan bisita egin ondoren edo agiriari erantsitako agiriak in situ kontsultatu ondoren soilik egin badaitezke, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako enpresa hautagaiek behar duten informazio guztiaren berri izan dezaten.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 136.2 y 3 de la LCSP, cuando la información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria no haya podido ser facilitada en los plazos indicados, así como cuando las ofertas solamente puedan realizarse después de una visita sobre el terreno o previa consulta in situ de la documentación adjunta al pliego, el plazo para la recepción de ofertas se prorrogará el tiempo que se considere conveniente para que las empresas candidatas afectadas puedan tener conocimiento de toda la información necesaria para formular las ofertas.

Lizitazio prozedura honetan ez da onartuko deskribatutako baliabide elektronikoen bidez aurkezten ez den eskaintzarik. Horretarako, beharrezkoa da Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataformaren edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataformaren erabiltzaile erregistratua izatea.

En el presente procedimiento de licitación no se admitirán ofertas que no sean presentadas a través de los medios electrónicos descritos. A estos efectos, es requisito necesario ser usuario registrado de la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi o de la Plataforma de Contratación del Sector Público.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala bistaratu, enpresa lizitatzaileek aukera izango dute egoera horren berri eman eta 24 orduko epean, formatu digitalean, fitxategi okerrean dagoen dokumentua aurkezteko.

En el caso de que cualquiera de los documentos de una oferta no pueda visualizarse correctamente, se permitirá que, en un plazo máximo de 24 horas desde que se le notifique dicha circunstancia, las empresas licitadoras presenten en formato digital el

Geroago aurkeztutako agiriak ezin izanen du aldaketarik izan eskaintzan jasotako jatorrizkoarekiko. Kontratazio-organoak dokumentua aldatu dela egiaztatzen badu, eskaintza ez da kontuan hartuko.

documento incluido en el fichero erróneo. El documento presentado posteriormente no podrá sufrir ninguna modificación respecto al original incluido en la oferta. Si el Órgano de Contratación comprueba que el documento ha sufrido modificaciones, la oferta no será tenida en cuenta.

Proposamenak Administrazio Klausula Partikularren Plegu honetan aurreikusitakora egokitu beharko dira, eta aurkezteak berekin dakar, enpresa lizitatzaileek baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horiek, inolako salbuespenik eta erreserbarik gabe, eta Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean dauden datuak kontsultatzeko baimena ematea Mahaiari eta Kontratazio Organoari.

Las proposiciones deberán ajustarse a lo previsto en este Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, y su presentación supone, por parte de las empresas licitadoras, la aceptación incondicionada de dichas cláusulas o condiciones, sin salvedad ni reserva alguna, así como la autorización a la Mesa y al Órgano de Contratación para consultar los datos obrantes en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas de Euskadi o en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu, aldaerak onartzearen kalterik gabe. Era berean, ezin izango du inolako proposamenik izenpetu enpresen aldi baterako elkartean, banaka agertu bada, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere. Arau hauek hautsiz gero, enpresa lizitatzaileak sinatutako proposamen guztiak ez dira onartuko.

Cada empresa licitadora no podrá presentar más de una proposición, sin perjuicio de la admisión de variantes. Tampoco podrá suscribir propuesta alguna en unión temporal de empresas si lo ha hecho individualmente, ni figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las proposiciones suscritas por la empresa licitadora.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legerian eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) esleipenari buruzko publizitateari eta enpresa hautagaiei eta lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruzko xedapenetan xedatutakoa alde batera utzi gabe, lizitatzaile horiek isilpekotzat jo ahal izango dute eskaintzak egitean emandako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialei eta isilpeko alderdiei buruzkoa. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

Sin perjuicio de lo dispuesto en la legislación vigente en materia de acceso a la información pública y de las disposiciones de la LCSP relativas a la publicidad de la adjudicación y a la información que debe darse a las empresas candidatas y a las licitadoras, estas podrán designar como confidencial parte de la información facilitada por ellos al formular las ofertas, en especial la relativa a secretos técnicos o comerciales y a los aspectos confidenciales. El Ayuntamiento no podrá divulgar esta información sin consentimiento del respectivo licitador.

Ondorio horietarako, lizitatzaileek gutun- azal bakoitzean zerrenda bat sartu beharko dute izaera hori eman dioten dokumentazioarekin, kontuan hartuta konfidentzialtasunaren hedadurak ezin diola bere proposamen osoari eragin, eta argi eta garbi adierazi beharko dute zein dokumentu diren, beren ustez, konfidentzialak, sekretu tekniko edo komertzialei eragiten dietelako, eta zirkunstantzia hori argi eta garbi islatu beharko dute dokumentuan bertan, gaininprimatuta, orri bazterrean idatzita edo beste edozein modutan.

A estos efectos los licitadores deberán incorporar en cada uno de los sobres una relación con la documentación a la que hayan dado ese carácter, tomando en consideración que la extensión de la confidencialidad no puede afectar a toda su propuesta, debiendo indicar claramente qué documentos son, a su parecer, constitutivos de ser considerados confidenciales, por afectar a secretos técnicos o comerciales, y reflejando claramente dicha circunstancia sobreimpresa, al margen o de cualquier otra forma en el propio documento.

Adjudikaziodunak isilpean gorde beharko du kontratua exekutatzean eskuratzen duen informazioa, baldin eta, bere izaeragatik, konfidentzialtzat jo behar bada pertsonen eta ondasunen segurtasunari eragiten diolako edo horrekin zerikusia duelako.

La adjudicataria deberá respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal por afectar o tener implicaciones directas en cuestiones de seguridad de las personas y bienes.

11.1 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

11.1 FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPOSICIONES

Enpresa lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztuko dituzte (A, B eta C).

Quienes liciten deberán presentar tres sobres electrónicos (A, B y C).

“A” gutun-azala hau izango da: “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”. Eta honako agiri hauek aurkeztuko dira:

El **sobre “A” será el de “CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR**” y deberá contener la siguiente documentación:

- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

- El Documento Europeo Único de Contratación (DEUC)

EKAB formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko web-orri honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

El formulario normalizado del DEUC está disponible para ser rellenado electrónicamente en la siguiente dirección web: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

*ALDI BATERAKO ENPRESAELKARTEAK

*UTE

Hainbat enpresari aldi baterako enpresa- elkarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresa horietako bakoitzakerantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta horietan jasota egongo da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu hauetarako eskatzen den informazioa.

En el supuesto en que varios/as empresarios/as concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación.

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresarien konpromiso bat aurkeztuko da.Hor adieraziko dute SPKLaren 69. artikuluaren 3. atalean eskatutakoarenarabera egingo dela aldi baterako elkartea.

Adicionalmente a la declaración o declaraciones a que se refiere el párrafo anterior se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los/las empresarios/as que sean parte de la misma de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 de la LCSP.

** TALDE BEREKO ENPRESAK.

**EMPRESAS PERTENECIENTES A UN MISMO GRUPO.

Talde berekoak diren enpresak, hau da, Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluko kasuren batean daudenak eta esleipenera banaka edo taldearekin zerikusirik ez duten beste enpresa batzuekin batera aurkezteko

Las empresas pertenecientes a un mismo grupo, entendiéndose por tales las que se encuentren en alguno de los supuestos del artículo 42.1 del Código de Comercio y que presenten distintas

proposamen desberdinak aurkezten dituztenak, aldi baterako elkartean parte hartzen badute, izaera hori jasotzen duen adierazpena aurkeztu beharko dute.

proposiciones para concurrir individualmente a la adjudicación, o conjuntamente con otra empresa o empresas ajenas al grupo con las que y con las cuales concurra en unión temporal, deberán presentar declaración en la que hagan constar esta condición.

Adierazpen esplizitua aurkeztu beharko dute, halaber, hainbat proposamen aurkeztu dituzten sozietateek, baldin eta Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan ezarritako ordezko kasuren batean badaude, sozietatea

También deberán presentar declaración explícita aquellas sociedades que, presentando distintas proposiciones, concurran en alguno de los supuestos alternativos establecidos en el artículo 42.1 del Código de Comercio, respecto de los socios que la integran.

***ATZERRIKO ENPRESAK

***EMPRESAS EXTRANJERAS

SPKLaren 67. eta 68. artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiakoepaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzaileei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

Las empresas extranjeras deberán acreditar su capacidad en la forma prevista en los artículos 67 y 68 de la LCSP. Además de la declaración responsable, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados o tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la empresa licitante.

"**B" gutun-azala hau izango da: "PROPOSAMEN TEKNIKOA**". Eta honako agiri hauek aurkeztuko dira:

El **sobre "B" será "PROPOSICIÓN TÉCNICA**". Y se presentará la siguiente documentación:

Gutun-azal horretan, agiri honen 10.2 klausulan adierazitako balio-iritzien araberako irizpideei erreferentzia egiten dieten agiriak jasoko dira.

En dicho sobre se recogerán los documentos que hacen referencia a los criterios de valoración mediante juicio de valor indicados en la cláusula 10.2 de este pliego.

Plegu hauetan adierazitako adjudikazio irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzaileak.

Se incluirá toda la documentación que la empresa licitadora considere necesaria para valorar los distintos aspectos de la oferta según los criterios de adjudicación citados en este pliego.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa, ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak "C" artxiboan sartuko dira. Datu horietako edozein "B" artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatze- koak ez diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie

En ningún caso deben incluirse el presente archivo la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática y que deben incluirse en el archivo "C". La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo "B" supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se les asignarán los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación no cuantificables de forma automática

“**C” gutun-azala hau izango da: “PROPOSAMEN EKONOMIKOA**”. Eta honako agiri hauek aurkeztuko dira:

Klausula agiri honen **II. Eranskineko** ereduaren araberakoa. Prezioa, BEZ-a eta osotarako kopuruak adieraziz.

Baldintza Teknikoen Pleguaren **III. Eranskineko** ereduaren araberakoa, bertan definitutako kontzeptuen arabera egituratutakoa.

Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko balio-iritzi baten bidez baloratzekoak diren adjudikazio-irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzeko ez dena); horiek guztiak “B” artxiboan sartuko dira.

Datu horietako edozein “C” artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatze- koak diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.

El **sobre “C” será “PROPOSICIÓN ECONÓMICA**”. Y se presentará la siguiente documentación:

Modelo del **Anexo II** del presente pliego indicando precio, IVA y cantidades totales.

Modelo **Anexo III** del pliego de prescripciones Técnicas, estructurado conforme a los conceptos definidos en el mismo.

En ningún caso deben incluirse en el presente archivo datos correspondientes a criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor (no evaluable mediante fórmula) y que deberán incluirse en el archivo “B”.

La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo “C” supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se les asignarán los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación cuantificables de forma automática.

12. KONTRATAZIO MAHAIA

Eskaintzak baloratzeko eta dokumentazio administratiboa sailkatzeko organo eskuduna Kontratazio Mahaia izango da, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluan jasotakoaren arabera jardungo du.

Honako kide hauek osatuko dute kontratazio-mahaia:

Mahaiburua: Maria Pilar Garmendia Miguel (Idazkari Kontu-hartzailea)

Kideak:
Iker Perez Sudupe Udal Arkitekto Teknikoa)

Mahaiko idazkaria: Diana Pineda Garcia (Ingurugiro teknikaria)

Mahaiaren bilerara, gainera, arduradun teknikoak joan ahal izango dira, mahaiak eskatzen badie joateko aholkularitza lanak egitera

12. MESA DE CONTRATACIÓN.

El órgano competente para la valoración de las ofertas y para la clasificación de la documentación administrativa será la Mesa de Contratación, que actuará de acuerdo con lo previsto en el artículo 326 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

La Mesa de Contratación estará integrada por los siguientes miembros:

Presidente: Maria Pilar Garmendia Miguel (Secretaria Interventora)

Vocales:
Iker Perez Sudupe (Arquitecto Técnico municipal)

Secretario de la Mesa: Diana Pineda (Técnica de Medio Ambiente)

Podrán asistir, además, todo aquel personal técnico cuya presencia sea solicitada por la Mesa, para ejercer labores de asesoramiento.

13. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du ("A" gutun- azala). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du zein enpresak betetzen dituzten plegu hauetan finkatutako hautaketa-irizpideak, eta espresuki adieraziko du nortzuk izan diren lizitazioan onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.

Dena dela, eskaintza ekonomikoak jendaurreko egintzan irekitzen direnean irakurriko da guztien aurrean zerrenda hori.

Egintza horretan, onartutako enpresa lizitatzaileen "B" gutun-azala irekiko da (formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideak), eta gutun-azalean sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.

Jarraian, "B" gutun-azaletako edukia udal teknikariei bidaliko zaie, formula bidez ebaluatzekoak ez diren esleipen-irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Txosten horrez gain, beste txosten tekniko batzuk eskatu ahal izango dira, ebazpen- proposamena egiteko beharrezkoak direla uste izanez gero.

Eskatutako txostenak jaso ondoren, Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.

Kontratazio-mahaiak, JENDAURREKO EGINTZAN elkartuta, enpresa lizitatzaile bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan

13. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS, SELECCIÓN DE EMPRESAS Y APERTURA DE PROPOSICIONES.

Vencido el plazo de presentación de proposiciones, se procederá a clasificar la documentación recibida en tiempo y forma (sobre "A"), procediendo, para ello, como se señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.

Una vez calificada la documentación presentada, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, se procederá a determinar las empresas que se ajustan a los criterios de selección de las mismas determinados en este pliego, con pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los rechazados y sobre las causas de su rechazo.

En todo caso, dicha relación será leída públicamente en el acto de apertura públicad de las ofertas económicas

En el acto no público se procederá a la apertura del sobre "B" (Criterios no cuantificables por fórmula) de las empresas licitadoras admitidas, dando lectura a la relación de los documentos aportados. A continuación, se dará por concluido el acto celebrado.

Posteriormente se remitirá el contenido de los sobres "B" para que el personal técnico municipal emita informe en relación a los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmula, sin perjuicio de poder solicitar cuantos informes técnicos se estimen necesarios a los efectos de formular su propuesta de resolución.

